



HERNANIKO HERRIA IRULEGIRA!

BISITA GIDATUA ARANZADIKO ARKEOLOGOEN KIN

Lortzen dugun etekin guztia arkeologo gazteek ikertzen eta industen jarrai dezaten izango da.

IRULEGI EZAGUTZEKO AUKERA PAREGABEA



Irulegiko Eskuaren aurkikuntzak euskararen jatorriari argia eman dio. **Euskaldunak zorioneko egin gaitu** eta berrikuntza esanguratsuak dakartza arkeologia- eta hizkuntza-munduan. Baina galdera berri aunitz ere ireki ditu. 2022ko azaroan aurkeztu zenetik, Euskal gizarteak berea egin du aurkikuntza hau, baino eskuaz haratago **Irulegiko aztarnategian ikerketa prozesuak luzerako jarraitzen du.**

2023ko kanpaina arkeologikoa martxan dago jada, eta Aranzadiren eskutik, **arkeologoen lana ezagutzeko aukera paragabea eskaintzen** dugu. Irulegiko Eskua agertu zen aztarnategira bisita gidatua, Aranzadiko arkeologoek gidatuta. Bertan Burdin Aroko herrixka eta eskuaren etxea erakutsiko dira arkeologoak lanean dauden bitartean. Gainera, XV. mendeko nafar gaztelua bisitatzeko aukera ere egongo da, guztia Aranzadiren arkeologoen eskutik.





BISITAREN BALDINTZAK



Autobusaren
irteera



Abiapuntua
Irulegiko
aparkalekua



Irulegi
Mendira
igoera



Azarnategian
azalpenak
arkeologoekin



Irulegi
Menditik
jaitsiera



Itzulera
Autobusez

Bisitak **uztailaren 1etik irailaren 17ra irekita egongo dira**, egunero, astelehen eta astearteetan izan ezik. Gainera, abuztuaren 28tik irailaren 3ra aztarnategia itxita egongo da.

Zein da bisitaren abiapuntua?

Topagunea Ilundaingo aparkalekua izango da, eta bertatik hasiko dugu bisita oinez aztarnategiraino. Leku horretara itzuliko gara gure ibilbide gidatua amaitzeko.

Zenbat irauten du?

Txangoak egun erdiko iraupena izango du. Behin Irulegiko aparkalekura iristerakoan, bisita gidatuak 2 ordu inguru iraunen du, baino taldearen erritmoa eta haren mugikortasunaren arabera luzatu daiteke.

Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokia da?

Zoritxarrez, oinezko ibilbidea Irulegi mendiko bide eta bidexketan zehar eginen da eta malda handiko tarteak izanen ditu. Gainera, gailurrera igotzeko 150 eskailera daude. Horregatik, bisitaldia ez da egokia aniztasun funtzionala eta/edo mugikortasun murriztua duten pertsona batzuentzat.

12 urtetik beherakoentzat egokia da?

Bai. Bisita gidatua adin guztietako haurrentzat aproposa da. Hala ere, gure arkeologoekin azalpenak ulertzeko, gutxieneko adina 8 urtekoa izatea gomendatzen dugu.





Zer eraman behar dut Irulegi bisitatzeko?

Mendiko arropa eta oinetako erosoak eta egokiak. Gainera, ura eta hamaiketakoa eramatea gomendatzen dugu.

Eguraldi txarra eginez gero, nola egingo da bisita?

Eguraldia ona bada, euririk egiten ez badu, bisita gidatua aire zabalean egingo da, eta arkeologo taldea indusketa lanetan ikusteko aukera izango duzue. Eguraldi txarra eginez gero, bisita gidatua Gongorako Zarra Jauregiko Interpretazio Aretoan egingen da. Bertan arkeologia taldearen eta laborategi lanen azalpena eskainiko dugu. Bi kasuetan abiapuntua ez da aldatuko (Ilundaingo aparkalekua izanen da).

GAZTE ARKEOLOGOEN LANA BABESTU!

Lortzen ditugun ekarpenekin Aranzadiko gazte arkeologoen ikerketak babestuko ditugu. Baliabideak behar ditugu arkeologo gazteek ikertzen eta industen jarrai dezaten, Irulegiko Eskuaren tamainako aurkikuntzak egin ditzaten. Gaur egun, Aranzadi Zientzia Elkartek udan bakarrik aktiba ditzake bere indusketak Zaldua, Irulegi, Artzi edo Donazaharreko aztarnategietan. Baina baliabide berriekin, arkeologo gazteen lantaldeak handitu litezke, gure Antzin Aroko ikerketa-lanetan aurrera egiteko.

«Irulegiko aztarnategia berezia da. Hemen lan ordu bakoitzak bere fruituak ematen ditu, eta laster aurkikuntza berriak egitea espero dugu. Talde on batekin eta baliabide gehiagorekin ikerketa bizkortu dezakegu.»

Mattin Aiestaran — Aranzadiko arkeologoa eta Irulegiko indusketaren zuzendaria



HERNANIKO UDALAK ERE IRULEGI ETA GURE HIZKUNTZAREN IKERKETA ARKEOLOGIKOAK LAGUNTZEN DITU!